

Meettok
Argitaletxe txiki
baten sorpresa
handiak

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Ihesi
Jata mendian
gora

ARGIA

erdiko kaiera


kultura eta aisia

80ko hamarkadako punkaren oroimenez

Jakina da punkak
(batez ere) eta
hardcoreak
garrantzi handia
izan dutela Euskal
Herrian eta
Espainian
Francoren
heriotzaren ostean.
Batez ere,
gazteriaren zati
garrantzitsu baten
espresio bide izan
zirelako eta bide
batez kulturaren,
politikan eta gizarte
arloan eragin
zuzena izan
zutelako. Urte
haietako giro bizia
ahazturan erori ez
dadin kaleratu berri
dute *No acepto!!!*
1980-1990: Diez
años de hardcore,
punk, ira y caos
DVDa.

IKER BARANDIARAN
Argazkiak: No acepto!!!





Ukazioa legetzat hartu zuen belaunaldia

GAUR EGUNGO GAZTE askotxok sasoi hartako estetika eta musika “kontsumitzen” jarraitzen dute, eta berau biziberritzen saiatzen dira, baina garaia ez dira berdinak, testuingurua zeharo aldatu da eta gainera sistemak, modak edo dena delakoak mugimendu apurtzaile, iraultzaile, kritiko eta deskonforme hura produktu bihurtu du; bere esentzia, izaera ematen ziona, desagerraraziz.

Euskal Herrian oihartzun oso handia izan zuten Ingalaterratik zetozen taldeek. Sex Pistols-ek, The Clash-ek, Damned-ek eta beste askok piztutako garra berehala zabaltu zen inguruotan. 80ko hamarkada hasierako lan-gabezia handiak, Francoren oinordekoen zapalkuntza ideologikoak, poliziaren errepresioak, ezker abertzaleak gazteen artean erakargarritasuna lortzeko gaitasun urriak eta beste arrazoi askok ezertan sinesten ez zuten gazte nazkatuak elkartu zituen.

Kaleko hizkera, amorrua kanporatzeko

Kaleko hizkera erabiltzeko ordua zen; amorrua eragiten zizuna ozen kanporatzeko; eta ez zen derrigorrez musika instrumenturik jotzen jakin behar. Hala, Arrasaten, Errenterian, Santurtzin, Bilbon, Gasteizen... punk taldeak sortzen hasi ziren. Eta horien atzetik gehiago etorri ziren.

Momentuak eskaintzen zien aukerak eta borondatearekin lor zitezkeen emaitzak ikusita, gazteak antolatzen hasi ziren: fantzineak, kontzertuak, gaztetxeak, irrati libreak sortu ziren.

[Ez dago 80ko hamarkadako punkaren historia biltzen duen material asko. Neurri batean hutsune hori betetzera dator](#)

No acepto!!! DVDa

Hain zuzen ere, sasoi hartako eztandari eta orduan egindako lanari zor dizkiogu gaur egun Euskal Herrian dagoen gaztetxe sarea eta ezerezetik gauzak sortu eta antolatzeko eskarmen-tuaren zati garrantzitsu bat. Mugimendua ez zen musikaren alorrera mugatu gainera: ekologismoa, antikapitalismoa, intumisia... pentsa-kera berriak zabaltzen joan ziren.

Gerora, punkak hartu zuen indarra ikusita, ezker abertzalea mugimendu horren indarrak jabetu zenean, *Martxa eta Borroka* leloa zuten kontzertuak antolatzen hasi zen; eta orduko kazetari batzuek punk taldeen saltsa-maltsa Rock Radical Vasco (Euskal Rock Erradikala) gisa bataiatu zuten.

Euskal Herriko esperientziak eragin handia izan zuen Espainiako Estatu osoan, eta beste herrialde horietako taldeek hona begiratu zuten, hemengo taldeen gordintasunean eta kalitatean erreparatuta; eta antolakuntza sistema eredugarria izan zelako.

Fantzineak, Basati diskak eta lehenengo bisitak

Lehenengo punk taldeen lanak argia ikusi ahal izateko zeresan handia izan zuen Donostiako Basati Diskak ekimenak. RIP, Bap!!, MCD eta beste talde erreferentzial batzuen estreinalako lanak kaleratzearen ardura izan zuten, ezinbestekoak bihurtu diren diskoak. Basatiren atzean, beste bi lagunekin batera Jabi Saies zegoen, Euskal Herriko lehen fantzineak egin zituen ipurterre bera: *Destruye* da horietan ezagunena.

Saies bera izan zen hemengo taldeak Euskal Herriatik kanpo ezagutzera eman zituen baita kanpoan gertatzen zenaren berri hona ekarri zuena ere. Berari esker sortu zen Kataluniako eta Euskal Herriko punk eta hardcore taldeen arteko lotura. Eta berari zor diogu, era berean, 80ko hamarkada erdialdetik 90eko hasierara Andoaingo gaztetxera eta Euskal Herriko beste puntu batzuetara atzerriko punta-puntako hardcore talde ugari etorri izana.

Luxuzko emanaldi horiek guztiek hazia erein zuten, eta poliki-poliki abiadura handiagoko hardcore taldeak sortu ziren gurean: Tortura Sistematika, Eskoria-Tza, Eizen, Ruido de Rabia, Karkaxa, Ximorra... Horien ostean, 80ko hamarkada bukaeran sortuko zuten Donostiako auzunean, Buenawixta etxe okupatuaren esperientzia, hardcore, punk-rock eta bestelako estiloetan ziharduten taldeen eskola izan zena (Escombros, Censura, La Perrera, Barrakos...); edota Laudioko *squat*-a, zeina metal eta hardcorearen alorrean ere ezinbesteko erreferentzia izan zen (Arbol, CLGSE eta Finisterrae bezalako taldeekin).

Lau ordu eta erdiko dokumentala

1990era arteko kontakizuna bildu dute DVDan. Izan ere bizipen eta esperientzia horiek oso leku gutxitan jasota daude, eta *underground*-ean gelditzeko zorian daude. Badira Hertzainak, Eskorbuto eta beste talderen baten gaineko liburuak, baita Elena Lopez Agirreren *Del txistu a la telecaster* saiakera ere, edota RIP taldearen gaineko *25 urteko historia bizia* dokumentala biltzen duen DVDa, baina oraindik asko dago kontatzeko eta jasotzeko, galdu aurretik.

Donostiako Alberto Bocos eta Zaragozako Jose Antonio Alfonso oso gaztetatik ibili dira punkean murgilduta. 2000. urtearen bueltan *Zona de Obras* aldizkariaren eta SGAE-ren (Espainiako Estatuko Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusia) laguntzarekin *Hasta el final* izeneko liburua egin zuten. Espainiako Estatuko punk mugimendua lau eremu geografikoan banatu zuten: Euskal Herria, Katalunia, Madril eta Zaragoza. Liburua gazi-gozoa izan zen, gauza guztiak ez zirelako egileek espero zuten bezala irten, talde dezente kanpoan gelditu zirelako eta batez ere, askoren ustez SGAE punkaren etsai porrokatua izan delako. Hala ere, ahalegina mardula, txukuna eta interesgarria da, eta oraindik ez du beste inork halakorik egin. Gainera liburua berehala agortu zen.

Joan den urtean, berriz, Espainiako Estatuko punkaren historia batuko zuen ikus-entzunez-



Goitik behera, Anti Régimen, Cicatriz, Ruido de Rabia eta Karkaxa taldeak.



Alberto Bocos, DVDaren egileetako bat

"80ko hamarkadan ez genuen onartzen esaten zigutena, baina eraiki egiten genuen"

Alberto Bocos Londresen izan zen 1976an eta ordutik punk-kean murgilduta ibili da, Jabi Saiesen alboan: atzeritik diskoak ekartzen; hardcore melodikoa egiten zuen Ezin Izan taldean; aldizkari, fantzine edota irratietan esku hartzen; eta Musica Autonomia disko dendaren arduradun. Atzeriko taldeak ekartzen zituen Zambombo elkarte eragilean burubelarri ibilitako Jose Antonio Alfonso zaragozarrarekin batera egin du Bocosek DVDa.

Punka eta hardcorea biak batera hartu dituzue hari gisa. Bi estilo horiek banatu ezinak al dira?

Banatu daitezke, baina Espainiako Estatuko poparen barruan ahaztutako bi estilo garrantzitsuenak dira; eta beraien artean lotura oso handia dute. Bestalde, badira hainbat talde punk gisa izendatu arren, musika estiloz hardcore barruan ere sar daitezkeenak: esaterako, RIP edota Espasmodicos.

Punkaren eta hardcorearen historia 1980tik 1990era mugatu duzue. Zergatik hor hain justu?

1990etik aurrera gauzak okertzen hasten dira... Badira talde interesgarri batzuk eta ideia onak baina... Ez da berdina. Sasoi horretan *crossover*-a hasi zen metala eta hardcorea nahastuz, eta hasierako esentzia galduz joan zen.

**Dokumentaleko talde guztiak batzen dituen sistema-
ren ukazioa da ezta?**

Bai, sasoi hartan ez genuen onartzen esaten zigutena. Gaur egun jendeak protesta handia egiten du, baina oso zaila da bereiztea... Edozeinek jarri ditzake gandorra edo rastak, baina dagoeneko ez da pertsonala. Guk gure kamisetak, txapak, kontzertuak egiten genituen; diskoei balio handiagoa ematen genien... gaur egun, edozein lekutan eskura daitezke. Ez genuen onartzen esaten zigutena, baina eraiki egiten genuen.

80ko hamarkadako taldeak mitifikatuegiak daude edo itzela izan zen orduan egin zena?

80ko hamarkada bukaeratik ez da halako indarra izan duen beste ezer sortu. Hip-hopa indartsua izan zen sasoi baten; heavyak antzera jarraitzen du; metal berria ahuldu da, baita hardcore melodikoa ere. Gaur egungo taldeek ez dute ez halako lotura ezta halako hunkipenik lortzen...

DVDaren azalean RIP jarri duzue. Zergatik?

Zalantza handiak izan genituen hasieran. Baina grabazioak berrikusi ostean konturatu ginen talde ia guztiek RIP eta Jabi Saies miresten dituztela; are gehiago, Arrasateko taldea Espainiako Estatuko punk-hardcore talde garrantzitsuenetakotzat dute gehienek, baita Jose Antoniok eta biok ere.

Jaso duzuen historiaren protagonistak jakitun al dira egin zutenak izan duen garrantziaz?

Gehienak oso pozik daude egin eta bizi izandakoaz, baina ez dute uste beraien lanak halako eragina izan duenik. Umiltasunaren adibide garbiena RIPekoak dira, oraindik ia ez dute sinesten eredugarriak izan direnik. Bestalde, musikari guztiek oso ondo hartu dute ekimena, poztu egin dira.

Espainiako Estatuko lau eremu bakarrik hartu dituzue, eta Euskal Herriko kapituluan, nahiz eta luzeena izan, Bizkaiko eta Nafarroako taldeak falta dira, besteak beste...

Bai, egia da. Badakigu jende dezente kanpoan gelditu dela, baina lortutako material guztiarekin ia gainezka egin genuen. 4 ordu eta erdiko lana osatu dugu, eta gauza asko kanpoan utzi behar izan ditugu. Gure asmoa da las-ter bigarren lan bat egitea kanpoan gelditu diren talde eta musikari esanguratsuekin. Gainera taldeen zuzeneko irudi gehiago sartzeko asmoa daukagu.

koa egitea erabaki zuten: *No acepto!!! 1980-1990: Diez años de hardcore, punk, ira y caos*. Liburuan egin zuten bezala, kontakizuna lau atal nagusitan banatzea erabaki zuten, Estatuan izan ziren gune garrantzitsuenetan, hain zuzen ere.

Horretarako, sasoi hartako dozenaka protagonistekin batu dira eta haien testigantzak jaso dituzte. Horrekin batera, talde horien guztien zuzeneko irudiak gehitu dituzte. Emaizak lau ordu eta erdi irauten du, bi DVDtan banatuta: punkaren gaineko sarrera bat, eremu geografiko bakoitzeko kapitulu bana, ondorioak eta argazki, horma-irudi, sarrera eta bestelako galeria erraldoia.

Euskal Herriko taldeak eredu

Euskal Herriko kapitulua da luzeena eta mami-tsuena. Hemengo protagonistez gain, beste herrialdeetako musikariek ere Euskal Herria

goraipatzen dute. RIP taldea da ardatz nagusia, baina Cicatriz, Eskorbuto, Kortatu, Vulpess eta Bap!! taldeen gainean ere zabal eta ondo hitz egiten dute elkarriketatuek. Andoaingo gazte-txea eta gerora punkari lekukoa hartu zion hardcore mugimendua ere gogoz nabarmendu dute DVDan agertzen direnek.

Euskal Herriaren gainean, beste askoren artean, protagonista hauek ari dira: RIP taldeko Jul eta Txerra, Jabi Saies, Fermin Muguruza (Kortatu), Loles (Vulpess), Klaus (Vomito), Drake (Bap!!), Xabi (Basura), Evaristo (La Polla Records), Miguelon (Anti Regimen), Arturo eta Gonzalo (La Perrera), Karlos eta Alberto (Karkaxa), Txirolo (Odio), Shanti, Lamberto, Santi eta Joxi (Tortura Sistematika eta Ruido de Rabia), Ritxi (Oihuka), Bolitxe (Subterranean Kids), Fernando (L'odi Social), Silvia (Ultimo Resorte) eta Manolo (UVI). ■